

Eusko Jaurlaritzak Gasteizko Udalaren lurzoru politika gaitzetsi du

Arabako hiriburuan etxebizitza berrien batez besteko prezioa 38 milioi pezetakoa da

Etxebizitzaren prezioek %2,1 egin zuten gora 1998ko bigarren hiru hilabete-koan, eta batez beste, 21,7 milioi pezeta balio zuten epe horretan. Babestutako etxebizitzek, ordea, batez beste 7,5 milioi pezeta balio zuten, orain urtebete baino %9,5 gutxiago. Prezioen igoera nabarmenena Arabakoa, eta batez ere Gasteizkoa izan da.

Erredakzioa / Gasteiz

PATXI ORMAZABAL Eusko Jaur-laritzako Etxebizitza sailburuak atzo eman zituen 1998ko bigarren hiruhilabete-ko eskaintza inmobiliarioari buruz egindako inkestaren emaitzak. Orain urtebeteko datuekin alderatuz, aurtengo bigarren hiruhilabete-koan etxebizitza askeen prezioek %2,1 egin dute gora EAEn, eta batez besteko prezioa 21,7 milioi pezetakoa izan da (860.000 libera). Etxebizitza babestuak, aldiz, merkatu egin dira, eta batez beste 7,5 milioi pezeta balio dute, iaz baino %9,5 gutxiago.

Etxebizitzaren eskaintza %18 jaitsi zen bigarren hiruhilabete-koan, eta guztira 12.952 egon ziren salgai. Murrizketa honen arrazoi dira, Ormazabalen arabera, salmentetan eman den dinamizazioa eta etxebizitza askeen eskaintzaren jaitsiera, babestutakoena %84 igo den bitartean.

Merkatu askean, metro karratu baten batez besteko prezioa 238.000 pezetakoa zen, berrien 256.000 pezetaren eta erabilitako 233.000 pezetaren tartean. Aldiz, babestutako baten batez besteko metro karratuko 105.000 pezetakoa zen, babestutako baten



Gasteizen eraikitzen ari diren etxebizitza batzuk.

DAVID AGUILAR

130.000 pezetakoa eta sozialen 87.000 pezetaren tartean.

Horrela, batez beste, merkatu askeko etxebizitza baten prezioa 21,7 milioi pezetakoa zen; 22,1 milioi berriena eta 21,6 milioi erabilitakoa; babestutakoa, berriz, 7,5 milioi pezetakoa zen.

Gasteizen garestien • EAEko datuak orokorrean hartuta, eskaintza libreko etxebizitza berrien metro karratuak 256.000 pezetakoa izan zuten, iaz baino %5,8 gehiago. Baina Arabako prezioek aise gaitzetsi dute prezio hori, metro karratuak batez beste 418.000 pezetakoa baititu; Bizkaian, berriz, batez bestekoa 240.000 pezetaren dago, eta Gipuzkoan 238.000 pezetaren.

Etxebizitzaren prezioan ere islatzen da igoera nabarmen hori, Araban batez bestekoa 36,7

milioi pezetakoa den bitartean, Gipuzkoan eta Bizkaian 20,6koa baita. Alegia, Arabako lurraldean %64,6 igo ziren prezioak iazko bigarren hiruhilabete-koarekin alderatuta. Arabako igoera honen erantzule Gasteizko prezioak dira. Patxi Ormazabal Etxebizitza sailburuaren arabera, egoera honen eragile hiriburuari eman zaion garrantzia izan da, etxebizitza berrien eskaintza txikiarekin batera. Horri prezioen igoera izugarri bat gehitu behar zaio.

Etxebizitza libreetan, EAEn prezioen %12ko igoera izan zen, baina igoera hori Araban %40koa izan zen. Erabilitako etxebizitzetan, berriz, Gipuzkoakoak izan ziren garestienak 32,5 milioi pezetarekin. Hiriburuetan, garestiena Donostia izan zen metro karratuko 362.000 pezetakoa

rekin; igoera handiena baina, Gasteizen izan zen, %12.

Patxi Ormazabalek zalantzan jarri zuen Gasteizko Udalak lurzoruaren eskaintza kudeatzeko duen modua. Ormazabalen arabera, Gasteizko Udalak babestutako etxebizitzetan eta sozialetan soilik uzten dio Eusko Jaur-laritzari parte hartzen, eta hain zuzen, horiek dira merkeenak. «Beste hiriburu batzuetan, ordea, kontzertatutako etxebizitzetan ere parte hartzen du Jaur-laritzak, hain zuzen prezioen kontrolean eragin gehien dutenak», azaldu zuen Etxebizitza sailburuak. Gasteizko Udalaren lurzoru politikarekin ezin duela bat etorri esan zuen. Halaber, zalantzan jarri zuen Salburua eta Zabalganan Gasteizko udalak erositateko lurrek arazoa konpontzeko dutela. X

Nafarroako ikasleen %70ek gaitzetsi dute iraileko hautapobra

Ikasle euskaldunen portzentaia altuagoak gaitzetsi du azterketa

Europa press / Iruñea

IRAILAN unibertsitatetako hautapoba egin zuten Nafarroako UBIko ikasleen %65,69k gaitzetsi dute aipatu azterketa. Proba bera egin zuten IEko ikasleen artean (Irakaskuntza Ertainen Erreforma), ordea, %73,52k lortu dute unibertsitatetara joateko azterketa gaitzetsi. Ondorioz, azterketa egin zuten 616 ikasleetatik 410ek gaitzetsi egin dute hautapoba.

Aipatu ikasleen gehiengoak erdarazko irakaskuntzan ikasi du. Eta erdaraz ikasi eta proba gaitzetsi duten ikasleen portzentaia ez da heltzen %70era; bai, ordea, euskarazko irakaskuntzan ikasi eta proba gaitzetsi duten ikasleen portzentaia: euskaraz ikasi duten ikasleen %80 inguruk lortu dute azterketa aprobatazea.

Era berean, eta UBIko ikasleei dagokienez, ikasketak zientifiko-teknologikoa burutu duten ikasleek osatzen dute hautapoba gaitzetsi duten ikasleen portzentaia. IEko ikasleek datuei erreparatu gero, berriz, natur zientziak ikasi dituzten ikasleek osatzen dute hautapoba gaitzetsi duten ikasleen gehiengo.

Bai UBIko ikasleei bai IEko koei, hautapobaren azken emaitzak jaitsi egin die hautapoba egin baino lehenago zuten espedientearen emaitza. Izan ere, batez beste, 4,4ko nota lortu dute hautapoba gaitzetsi duten ikasleek aipatu azterketan. Eta hautapoba egin aurretik zuten nota, batez beste, 6,2koa zen. X

Foru Aldundiak uste baino jende gehiago bildu da Bizkaiko hondartzetan

Bildutako hondakin kopurua %12 jaitsi da iazko datuekin alderatuz

Aritz Markaida / Bilbo

BIZKAIKO Foru Aldundiko Ingurugiro Diputatu Maria Esther Solabarrietak Bizkaiko hondartzaren denboraldiko balantzea egin zuen atzo. Ekainaren 1etik irailaren 15era doan tartean, lau milioi eta erdi pertsona baino gehiago joan dira lurralde historikoko hondartzaren batera. Urte hasieratik hondartzaren denboraldia hasi arte joan zirenak, eta urtea amaitu arte joango direnak kontutan hartuz, guztira sei milioi pertsona baino gehiago egongo dira Bizkaiko hondartzetan 1998an. Solabarrietak aipatu zuenez, «gure sailak urte honetarako eduki dituen aurreikuspen one-

nak gaitzetsi dira, bost milioi pertsona baino zerbait gehiago espero baikenituen».

Jende gehien hartu dituen hondartza, iaz bezala, La Arenakoa izan da, Muskiz eta Zierbena artean. Jende kopuruari dagokionez, igoera handiena izan duena Bakiokoa izan da; iazko seigarren postutik aurtengo bigarrenera igaro da. Laidak, Gorliz, Plentziak eta Lagak ere pertsona asko bildu dituzte urte honetan.

Aurtengo hondakin gutxiago bildu dira • Hondakin bilketari dagokionez, udako hilabeteetan ia 1.600 tona hondakin bildu dira. Urte hasierako hilabeteetan bildutakoak, eta gelditzen direnak

bilduko direnak kontutan hartuz, 4.400 tona jasoko dira, iaz baino %12 gutxiago. Ingurugiro Diputatuarentzat, jendearen sentsibilitate gero eta handiagoari esker lortu dira datu horiek. Solabarrietaren iritziz, «uda honetako puntu beltza Sopelako hondartzan aurkitutako gorozki-hondakinena izan da». Aldundiko Ingurugiro Saileko arduradun nagusiarentzat, beharrezkoa da erakunde bat gainean egotea berriro horrelakorik gerta ez dadin. «Aldundiak baditu eskuduntzak arlo horretan, baina noiz jasoko ditugun zain gaude», esan zuen.

Balantze honek 27 hondartza hartzen ditu, eta garbiketa lanen aurrekontua 176 milioi pezetara



Iaz baino zabor gutxiago bildu da aurtengo Bizkaiko hondartzetan.

MANU MUJICA

heldu da (7.400.000 libera). Garbiketa lan horietan 73 pertsonak eta talde mekaniko sofistikatu batek jardun dute. Guztira 47 hondartza zainek egin dituzte zaintza lanak eta hondartzaren erabiltzaileentzat laguntza lanak: aparkalekuen zaintza, trafikoko kontrola, animalien sartzeara

debekatzea, etabar. Lan horietarako Ingurugiro Sailak egin duen inbertsioa 41 milioi eta erdi pezetakoa izan da (1.660.000 libera).

Ekaineko lehen egunetan arean eraman zen Ereagako hondartzatik Arrigunagara, eta 9.000 metro koadroko azalera erabiltzeari lortu zen. X